

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25951 - Gizarte Errealitateen Behatokia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau E. moduluaren baitan kokatzen da (PRAKTIKAK ETA GRADU AMAIERAKO LANA), titulu akademikoaren borneyan kreditu gehien dituen: gelako praktikak (24 kreditu), kanpoko praktikak (32 kreditu) eta Gradu Amaierako Lana (10 kreditu).

Modulu hau konpetentzia profesionalen garapenari estuki lotuta dago. Izan ere, ikasleek lan profesionalerako ezagutza eta oinarriko gaitasunak erdieste bermatzen da, bai esku-hartzeari dagokionez, bai eta Gizarte Langintzako ikerketari begira ere. Modulu hau titulu akademiko osoan zehar eskaintzen da, jardute profesionalerako hurbilketa progresiboa bilatuz. Prozesu hau practicum eta Gradu Amaierako Lanarekin amaitzen da azken ikasturtean. Harremana duten irakasgaiak ondokoak dira: Gizarte Baliabideen Behatokia, Jardute Profesionalerako Sarrera eta kanpoko praktikak, azken horien baitan practicum, Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala eta Gradu Amaierako Lana barnebiltzen direlarik.

Irakasgai honetan giza errealitatearen oinarriko ezagutza lantzen da, baita gizarte arazo eta fenomenoak ere, gizarte langintzak ikergai hartzen dituen populazio sektore nagusiak aztertuz. Gizarte sektore eta kolektiboen ikerketak hurbilketa teoriko zein diagnostikoa inplikatzeko ditu. Aldi berean, talde-lana eta komunikazio gaitasunak (ahozkoa eta idatzizkoa) landuko dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgaiko konpetentzia espezifikoak:

1. Errealitate soziala kritikoki aztertzea, gizarte-problematika berriak identifikatu eta aurreikusi ahal izateko (MO6CM03).
2. Informazio iturri ezberdin eta IKTak (informazio teknologia berriak) erabiliz, hurbilketa diagnostikoko lan teoriko bat osatzea eta idaztea (MO6CM06).
3. Informazioa laburbiltzea, arrazoiketa ildoak garatzea eta argudiaketa bati eustea (MO6CM07).
4. Zuzentasunez mintzatzeko eta idazten jakitea (MO6CM09).

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Gizarte sektore eta egoera sozial zaurgarrietan dauden kolektibo nagusiak. Hurbilketa teoriko eta diagnostikoa:

- Familia, haurrak eta gazteak
- Adineko pertsonak
- Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak
- Gaixotasun kroniko edota desgaitasunak dituztenak (fisiko, intelektual edota zentzumenekoak)
- Etorkinak
- Talde etnikoak
- Menpekotasunak dituztenak
- Emakumeen kontrako indarkeria
- Giltzapeturik daudenak eta egon direnak
- LGTB kolektiboa

Landuko diren zeharkako gaitasunak:

- Ahozko zein idatzizko trebetasunak
- Taldean lan egiteko trebetasunak

METODOLOGIA

Irakaskuntza mota hauek sustatuko dira:

- Aurkezpen teorikoak
- Gelako praktikak
- Ordenagailuko praktikak
- Ikasleen lan autonomoa

Honakoak dira hezkuntza motak:

- Gelan testu irakurketa eta eztabaida
- Zenbait erakunderen hitzaldi eta eztabaida
- Talde lanak
- Talde aurkezpenak eta eztabaida

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	22,5		67,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 10
- Test motatako proba % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 60

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistemari dagokionez:

EBALUAZIO SISTEMA JARRAITUA IZANGO DA: % 40 balio duen banakako froga egongo da eta % 60 balio duen talde lana. Konkretuki:

- Banakako froga (notaren % 40): Sarrera teorikoan ikusitako edukiak, ikasgelan izandako hitzaldien edukia jasoko dituen froga (test eta galdera irekiak).
- Taldeko lana (notaren % 60): a) Gizarte sektore eta kolektibo desberdinen gaur egungo ezagutza ahalbidetuko duen prentsa dossier baten buruketa (% 20); b) Gizatalde zehatz baten errealitatearen inguruko lan eta aurkezpena (% 40).

Irakasgaia gainditzeko, bi parteak gainditu beharko dira (azterketa eta lanak). Hauetarikoren bat ohiko deialdian gaindituko ez balitz, gainditutakoaren nota ez-ohiko deialdirako gordeko litzateke. Hala ere, ez dira nota hauek kurtso batetik bestera gordeko.

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA ESKATZEKO PROZEDURA: Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, ebaluazio jarraian parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak ebaluazio jarraiarari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 8.3. art.).

Azken ebaluaziorako eskubidea dutenentzat:

- Banakako froga: Idatzizko froga teorikoa (notaren %100)

Egoera dela eskolak eta ebaluazio frogak ezin badira presentzialki egin, leheneago aipatutako irizpideak mantenduko dira, bai ebaluazio jarraian eta bai azken ebaluazioan. Kasu honetan, lan, ariketa eta frogen entregak eGelaren bitartez egingo dira eta aurkezpenak egiteko BlackBoard Collaborate-en bitartez egitea aurreikusten da.

ESKOLETARA ETORRERARI BURUZ: Ebaluazio jarraituaren sistema hautatzen dutenen kasuan eskolen %80ra etortzea beharrezkoa da.

OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEKO BIDEA:

- Ebaluazio jarraituaren kasuan: Azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa bada, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztearekin azken kalifikazioa "ez aurkeztua" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (12.2 art).
- Azken ebaluazioaren kasuan: Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki deialdiari uko egitea (12.2 art). Kalifikazioa "ez aurkeztua" izango da.

Azkenik, etika akademikoari buruzko protokoloari jarraikiz:

- Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak,

oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia, 3. puntua, 5. or.)

- UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkotzat ebaluazio probetan, ebaluatu beharreko lan akademikoak egiterakoan eta horien aurkezpenetan: Lanak plagiatzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan (2.a. puntua).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdirako ebaluazio portzentaiak eta prozedurak ohiko deialdirako dauden berdinak izango dira. <https://gestion-servicios.ehu.es/pls/entrada/sasw0050.htm#2756>

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak egelan eskegiko ditu nahitaez erabili beharreko materialak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Arriaga, Mikel eta García, Oihane (2007). "Ciclo de vida adolescente, minorías y proyecto de vida de calidad", IX Congreso Español de Sociología. Barcelona: FES.
- De la RED, Natividad (2003). Trabajo Social y demandas emergentes. Madrid: CCS.
- Eusko Jaurlaritza Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (2012): "Pobrezari eta gizarte desberdintasunei buruzko 2012ko inkesta. Emaitza nagusiak". Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. 1-14 orr.
- Manzanos, César (1998). "Salir de prisión: la otra condena", Zerbitzuan, 35, 64-70 orr.
- Martin, María José (2014). "Emakume etorkina Euskal Autonomia Erkidegoan", En Moreno, Gorka (Ed.). Inmigrazioa eta krisiaren eragina. EAEko inmigrarioari buruzko 2013ko urtekaria. (137-152 orr.). Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Mier, Iratxe, Canto, Ainara eta Uribelarrea, Elda (2006). "¿Hay mujeres pobres en la CAPV? La pobreza en las mujeres solas", Zerbitzuan, 40, 67-71 orr.
- Ortiz, Luis (2004). "La opresión de minorías sexuales desde la inequidad de género". Política y cultura, 22, 161-182 orr.
- Ruiz, Susana eta Martín, María del Carmen (2012). "Nuevas formas de familia, viejas políticas familiares. Las familias monomarentales", Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas, 159-175 orr.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

- Drogomedia Boletina, <http://drogomedia.com/es/boletin/>
- Gizarteratuz Boletina, <http://www.sis.net/es/publicaciones/gizarteratuz/>
- Servicios Sociales y Política Social, https://www.cgtrabajosocial.es/revista_inicio
- Cuadernos de Trabajo Social, <https://revistas.ucm.es/index.php/CUTS/>
- Documentos de Trabajo Social, <http://www.trabajosocialmalaga.org/revistadts/>
- Zainduz Koaderno Teknikoak, <http://kalitateazainduz.net/eu/que-es-la-fec.php>
- Zerbitzuan, <http://www.zerbitzuan.net/>

Interneteko helbide interesgarriak

- Aministia Internacional
- Arabako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia
- Ararteko
- Bakea eta Elkartasuna Fundazioa-Globalizazioan lanaren behatokia
- Bizkaiako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia
- Cáritas
- Emakunde
- Espainako Barómetro sociala
- Espainako Gizarte Behatokia
- EUROSTAT
- Gao Lacho Drom Ijitoen Elkartea
- Gipuzkoako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia
- Gizarte Langintza Elkargo Ofizialen Elkargo-Orokorra
- Hautzaroaren behatokia
- Ikuspegiak-Gizarte Gaien Behatokia. Inmigrazio Behatokia
- INE-Estatistikako Institutu Nazionala
- Oberaxe-Arrazakeria eta Xenofobiaren Behatokia

SIIS-Eguia Careaga Fundazioa

OHARRAK

Ebaluazio sistema jarraitua zein azken ebaluazioaren sistema jarraitzen duten ikasleen kasuan, banakako froga idatzian zein burutu beharreko lanean akats ortografikoak edo/eta idazkera okerra agertzeak SUSPENTSO kalifikazioa ekar dakeke.